

Funtsezko baliabideak

Gure negozioak funtziona dezan hauek izango lirateke behar izango genituzken baliabide nagusiak:

- Fisikoak: diseinua egiteko materiala beharko dugu, hain zuzen ere edalontziak eta tapak egiteko. Makina bat ere beharko dugu produkzioarako. Bestalde, lanerako lokala ere izango dugu, bertan lanean jarduteko ordenagailuak (bi etxetik eta bi erosiko ditugu) eta telefonoa ere beharko ditugu fakturak eramateko, web-gunea eramateko eta bezeroekin komunikatu ahal izateko.
- Intelektualak eta giza baliabideak: Mireia eta Mariaren sormena erabiliko ditugu diseinu originalak egitearren. Paularen informatikako eta web-guneak diseinatzeko ezagutzak ezinbestekoak izango dira web-gunean informazioa jarri eta kontuak eta fakturak eramateko. Azkenik, Eleneren salmentetarako eta antolaketarako abileziak erabiliko ditugu dena antolatuta izateko eta bakoitzak zer egin behar duen jakiteko, baita gehiago saltzeko estrategiak erabiltzeko ere.
- Finantza-baliabideak: produkzioarekin hasteko behar dugun dirua banku bati maileguan eskatuko diogu.